

Literatura →

Beltza, azkarra, sinplea

Alex Gurrutxaga

Liburu batzuk, errazak izan nahiz ez, *best seller* bihurtzen dira merkaturatzean, idazleak nahiz liburuak zabal-kunde handia izan dutelako. Beste liburu batzuk *best seller* izaerarekin sortzen dira: irakurterrazak izan nahi dute, trama txukuna baina ez konplikatu egia eta forma narratibo argia izan. Esan daiteke *Bizkartzainaren lehentasunak* bigarren motako nobela dela, alegia bere ezaugarri nagusiak *best seller* beltz bat sortzera bideratuta daudela. Idazleak berak esan du «nobela azkarra, beltza eta irakurterraz» dela, eta definizio oso egokia da testua aztertuz gero.

Nobela Bilbon kokatzen da. Bertan, Martin Goena protagonistak bake prozesuak aurrera egin dezan funtsezko zeregina onartu du: ETAn sator gisa aritu den gizon bat (Oier) babestea. Irasizabalek erabili duen kontamoldeak ez du aparteko konplikaziorik: istorioa lehenaldian, denbora kronologikoa jarraituz eta hirugarren pertsona dago kontatua. Trama nahiko sinplea da, egitura

klasikoduna: zerbaite okertzen da, eta gero apurka desoreka hori konpontzen joaten da. Gainera, pertsonaia gutxi daude, eta trama ez da inoiz nahasgarria gertatzen. Pertsonaia bakoitza duen funtzioak definitzen du, eta ez karakterizazio sendoak. Salbuespena protagonista da, Martin Goena, gehien fokalizatzen dena eta pertsonaia nagusia denez gero.


Testuaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa abiadura eta suspensea dira. Suspensea mantentzeko hainbat errekurtsu erabiltzen ditu Irasizabalek, nagusiki informazioa erdizka ematea; hona adibide bat: «Oier ez zen sekula kezkatzen, eta Martinek ematen zizkion agindu guztiak betetzen zituen; hori uste zuen Martinek behintzat» (30. or.). Abiadura inportantea denez, ugariak dira elipsiak eta laburpenak denbora hilak saihesteko eta geldiuenerik egon ez dadin. Salto horiek ez dira oso modu sotilean egiten, eta horrek narrazioa itsusten duela esango nuke. Bestalde, bereziki azkarra gertatzen da amaiera, eta faltan sumatu dut korapiloa askatzen denean tentsioari pittin bat gehiago eustea.

Istorio nagusiak duen berrikuntza da egoera politikoaren inguruko kontuak agertzen direla. Istorioak, ezer baino lehen, lotura zuzena du euskal gatazkarekin. Horrez gain, politika dosiak agertzen dira han eta hemen. Hasieran printza batzuk bakarrik dira, eta nobelak aurrera egin ahala zuzenago sartzen da politikaren gaia. Nabarmentzekoak aipaturiko printza horiek dira, esate baterako, nola erabiltzen den modu ironikoan «bakearen alde» zer-

bait egitearen ideia. Halere, esan behar da gogoeta luzerik ez dagoela: gertaerak deskribatzen dira, eta akzioa da nagusi. Hortaz, kritika ere zeharka egiten da, batzuetan modu sotilean eta beste batzuetan argiago. Modu finean egiten dela esango nuke, esaterako, hainbat momentutan kritikatzenean alabak (ezker abertzalearen bueltan dabilenak) duen postura manikeoa.

Beste alde batetik, azpimarratu beharrekoa da aitasunaren gaia nola jorratzen den. Martinek politikaren eta bizitza pertsonalaren arteko kinka bizi du: politikak bizitza pertsonala urratzen dio, eta gatazka horretan agertzen dira benetan bizkartzainaren lehentasunak, hein handi batean aita mugiarazten duena alabarekiko maitasuna da-eta. Egiak ez da gai horretan asko sakontzen, nahiz eta irakurleak erraz interpreta ditzakeen aitalababekideak.

Esan bezala, nobela azkarra, entretenigarria eta irakurtzeko erraza da. Kontua da erraza dena sinplea ere gerta daitekeela. Eta sinplea denarentzat itxita daude Literaturaren atekak.



'BIZKARTZAINAREN LEHENTASUNAK'

- Egilea: Iñaki Irasizabal.
- Argitaletxea: Elkar.

↓ Haur eta gazte literatura

Dibulgazioa haurrentzat

Liburu bitxia, jostalaria irudietan eta animalia zalea bihotzean. Halatsu definitu ohi dituzte Nagata jaunaren obra bakoitza eta guztiak.

Euskaratu berri duten hau edizio handian dator (27x19 cm), 192 orrialde, testuz urria, maiz bi orrialdeak hartzen dituzten ilustrazio ikusgarriekin.

Dibulgazio asmoa duen lan honetan zazpi animalien deskribapena egiten da, Nagata ikertzailearen laguntzarekin: balea, krokodiloa, gorila, hartza, otsoa, lehoia, marroa. Anima-



'TATSU NAGATAREN PIZTIA HANDIAK'

- Testua eta ilustrazioak: Tatsu Nagata.
- Itzultzailea: Aztiri.
- Argitaletxea: Ttartalo.

lion ezaugarri nabarmenenak esaldi sotilean adierazita agertzen dira, irudien bidez txisteak eginez, maiz Nagataren lepotik.

Obarren luzerak kontrakoak iradoki lezakeen arren, lau-bost urtetik aurrerako edonork irakur lezakeen obra da.

Liburuaren egilea eta haren obra misterio handia dira. Ur lehortarren mutazioan munduko aditu nagusia izanik, harrigarria da frantsesa ez den beste hizkuntzetan ez argitaratzea, ez baitauka ezer kaleratuta gainerako hizkuntza handietan, ezta japonieraz ere. Esku artean dugun hau euskarara ekarritako lehen obra da, ez da gutxi aurrerakariak jakinda.

Norbaitek jakin nahiko balu zer edo nor ezkututzen den misterio honen atzean, jarrai dezala Nagatak Europan duen «kontaktu», Thierry Dedieu ilustratzaile frantsesa, bera baita ziur-nerena galdera guztien erantzuna.

Bide batez, gogora dezagun Dedieuren lan bat dugula euskaraz: *Yakouba* (Ikas, 2008).

■ IMANOL MERCERO

Greziar mitoen laburpen bilduma

Liburu mardul honek Greziako hogeita lau ipuin mitologikoren bertsiio laburtuak ekartzen ditu, irudi koloretsuekin hornituta, dibulgazio asmo garbi batekin eraikitua.

Tamainaz txikia da (17x13 cm), orrialdez oparoa (392 or.) eta irudiak ditu ia orrialde guztietan. Horregatik eta aurrerago emango diren gainerako azalpenengatik, 8 bat urtetik aurrerako haurrentzako oheburuko ipuin bilduma egokia izan daiteke.

Txandaka lau ilustratzaile hauen irudiak agertzen dira: Nu-



'ANTZINAKO GREZIAKO IPUINTXO BAT GAUERO'

- Egileak eta ilustratzaileak: Hainbat.
- Argitaletxea: Aizkorri.

ria Feijoo, Estibalitz Jalon, Esclatxa eta Iban Izagurre.

Testuak oso eskematikoak izanik ere, badakite mito bakoitzaren funtsa erakutsi eta azpimarratzen. Pasarte ankerak leunduta daude edota elipsi bidez ezkutatuta, baina datu faltsu edulkoratuak ez dira erantsi, —Disneyzaziorik gabe, argitu zuten Igerabidek irratian—.

Antzinako Grezian hainbeste mito egonik obra honetan ezin denei lekua eman, eta dezente falta dira, baina oinarrikoak biltzen saiatu omen dira.

Ipuintegi hau Ipuintxo Bat Gauero bildumako laugarren zerbakia da. Lehena, *Ipuintxo bat gauero*, amandre ipuinekin eta irakurle txikienezako narrazioekin osatua dator; bigarrena, *Animalien ipuintxo bat gauero*, fabulekin eta animalien istorioekin; hirugarrena, *Munduko ipuintxo bat gauero*, lurbera guztiko tradizioen mitoen bilduma; eta laugarren hau, esan bezala, Grezia klasiko mitoen bilduma da. ■ IMANOL MERCERO



'BIZIAREKIN, ADIMENAREKIN ETA UNIBERTSOAREKIN AURREZ AURRE'

- Egilea: Eduard Punset.
- Itzultzaileak: Alberto Gabika-gojeaskoa eta Julen Kaltzada eta Xabier Monasterio.
- Argitaletxea: Gaiak.

Eduard Punset dibulgatzaileak egungo hainbat zientzialari egindako elkarrizketak biltzen ditu liburuak, Victor Johnston eta James Lovelock adibidez.



'JUSTIZIA INTERDITAREN POETIKA'

- Egilea: Fito Rodriguez.
- Argitaletxea: Utriusque Vasconiae.

Trantsizioa deitu izan den garai historikoaren berriarroketa bat proposatu du Fito Rodriguezek, Gabriel Arestiren *Zuzenbide debekatu* poema liburu ardatz eta gidari hartuta, Espainiatik ezarritako ikuspegiari uko eginez eta haren ordez Euskal Herriko jorratuz.



'MUNDUKO BANDARIK TXARRENA'

- Egilea: Jose Carlos Fernandes.
- Itzultzailea: Bego Montorio.
- Argitaletxea: Txalaparta.

Musika banda baten gorabeherak kontaktzen dituzten komiki istorio laburrak biltzen ditu liburuak. Egileak sei liburukiz osatutako bilduma kaleratu zuen, eta haietako hiru euskaratu ditu Bego Montoriok. Harkaitz Canok hitzaurrea idatzi du.